



Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (III)*, Piarres Larzabal  
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1992

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalSenperen.htm>

## SENPEREN GERTATUA

**Piarres Larzabal**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## SENPEREN GERTATUA

*Urriki latza (1964)*

### Jokalariak:

**GANIX:** 50 urte, idor, eskrupulos moldeak.

**ANTON:** 22 urte, edozoin.

**LUIX:** 50 urte, edozoin.

**ERRETORA:** 50 urte, fermu.

**POLIZA:** 50 urte, bortitz.

**JENDARMA XEFA:** 50 urte, ofizioko itxura.

**TARALET:** 35 urte, txar, bitzi.

**KATXIN:** 40 urte, edozoin.

**JANA MARI:** 50 urte, zintzo, zaintsu.

**MARGO:** 20 urte, beldurti.

Mintzatzen ez direnak: Ostalertsak, hiru kantari, Manex beretterra.



## LEHEN GERTALDIA

### Joka-lekua:

Erretor etxeko sala, sar ate bat.

*Oihala idekitzean, jaun erretora, gizon bat urriki z bautsia, kofesatzen ari da. Biak xutitzen dira.*

**GANIX:** Zertako hil dudan Mixel, zertako hil-eta, erre dudan lastoz eta petrolez, ez dakit, nihaurek ez dakit... Arratsean, ardi bat eskas nuen bordan... Mixelen artaldean zitakela, jo dut haren bordarat... Mixel ez zen han... Haren arditegian sartu naiz, ardien ikusteko... Barnean nintzelarik Mixel agertu da nonbaitik. Ez zuela balio ene burua erakus nezan, gorde nitzaio... Bainan, ohartu da han bazela norbait eta makilarekin eman daut burutik behera... Orduan erotu naiz... Ez nintzen gehiago ene zainen jabe... Han baitzen aizkora bat, harekin garbitu dut gizona... Eta, ondotik, ene egitateaz ikaratua, behar nuela gorputz hura suntsitu betikotz, su eman diot, lastoz eta petrolez inguraturik.

**ERRETORA:** Badu nehor familiakorik?

**GANIX:** Ez... Nonbaitik jina zen...Nehork ez dio behin ere askazirik eza-gutu... Beti bakartasuna bizi izan da artzaingotik.

**ERRETORA:** Jainkoarekin zorretan izanen zira, ba eta ere haren arimarekin.

**GANIX:** Kontzientziaz bortxatua niza, jujeri ene krimen aitortzera?

**ERRETORA:** Gure Jainkoak holakorik ez du galdatzen. Erreparatu ba, behar duzu, Jainkoari eta gizoneri, bainan aitorra, kofesioan dugu bakarrik zor, Jainkoaren ordainari.

**GANIX:** Bainan jujek galdatzen badautet ni nizan krimaren egilea, ukatzen ahal duta? Ez dea hori gezurra deitzen?

**ERRETORA:** Ez du Jainkoak galdatzen denen aintzinean zure bekatua aitortzeko... Aitor hori, beren ofizioaz, zureganik atera nahi dutenek, beren lana egiten dute... Bainan, jujek beren dretxoa balin badute zuri galdeen egiteko, zure dretxoa ere da, zure hobena denen aintzinean ez aitortzeko...

**GANIX:** Bainan, ez dea katiximan, egia behar dela beti erran tribunalean?

**ERRETORA:** Lekukoek ba egia zor diote gizonen tribunalari... Hobendunek aldiz Jainkoaren tribunalari bakarrik... Hobendunak, Jainkoaren tribunaletik entzun sententzia konpli beza, eta kito da Jainkoarekin eta bere kontzientziarekin.

**GANIX:** Bainan, munduari egin eskandala, ez dea munduaren bixtan erreparatu behar?

**ERRETORA:** Egin ditakena da, bainan Jainkoak ez gaitu hortarat bortxatzen... Maiz ere, munduari egin eskandala, munduko tribunalek ez dute erreparatzen, bainan saltsatzen eta berdura-tzen.

**GANIX:** Dakizun bezala, auzoko Anton preso altxatua dute hobendun gisa... Kontzientziaz, hura zikintzerat eta kondenatzerat uzten ahal duta?

**ERRETORA:** Zure burua garbi-azu, nehor akusatu gabe... Antonek, bere malura, zureganik badu, ez dezala izan zureganik... Nahi baduzu Anton salbatu zure hutsa jujeri aitortuz, haizu zira, bainan ez zira hortaraino kontzientziaz bortxatua.

**GANIX:** *(Jalitzen bezala da, bainan berri z sartzeko)* Ha, eta ena alaba, gure Margo, zer bilakatuko da?... Dakizun bezala, banak igan-dean dituzu.

**ERRETORA:** Ba, hori bera gogoan egona naiz.

**GANIX:** Ene haurraren malura egiteko dretxoa baduta, ixilik egonez?

**ERRETORA:** Uste duzua, mintzatuz, zure alaba hobeki zerbitzatuko duzula?

**GANIX:** Ho kolera... Zertako kolera korra naiz?... Ha, ondorio izigarriak...

**ERRETORA:** Kolera, bekatu kapitala, bertze haintz bekatuen iturburua.

**GANIX:** Eta orai, kofesatu-eta, kito niza beraz?

**ERRETORA:** Ba, jada erran dautzut, erreparatu-eta.

**GANIX:** Uste duzua gero kontzientzia bakean sendituko dutala?

**ERRETORA:** Ez, ez duzu egitate hortaz sekulan kontzientzia bakean sendituko.

**GANIX:** *(Asaldatua)* Zer nahi duzu erran? Jainkoak ez dautala barkatuko?...

**ERRETORA:** Ez... Jainkoak barkatuko dautzu. Bainan gure egitatek segitzen gaituzte... Zure bekatuaren zauriak beti min egiten dautzu... Gizonaren kontzientzia da gordetegi bat bezala, bere egitateen oroitzapenez bete... Oroitzapen horiek, on edo gaixto, gordetegi hortarik jalitzen dira noizean behinka, gu kontsolatzeko edo minberatzeko... Atzarririk, berdin



lotarik, kontzientziaren danga ilun zorrotzak, bihotza penatuko eta zilatuko dautzu... Eta urtek ez dute kontzientziaren danga hori eztituko, bainan hobeki bortiztuko eta pisutuko.

**GANIX:** Hau, zorte malurusa!...

**ERRETORA:** Ba, presundegi eta amandak zerbait badira, bainan heien gaztigua baino segurago eta latzago duzu, kontzientziaren danga ezin ixildua.

**GANIX:** Jauna, otoitz egizu enetzat. (*Bibotza joa, jalitzen da*)

**ERRETORA:** Ba, otoitz egin dezagun elgarrentzat. (*Bakarrik, gogoetatua, harat eta hunarat dabil... Mahain gaineko gurutzefika tinkatzen du eskuetan. Gero, bizarra egiteko pusken apailatzen lotzen da. Bainan, atea jotzen dute, idekiz*)

**ERRETORA:** To, gaizoa, hi hintzena, eskoletako adixkide zaharra! Nun habila hemen gaindi?

**POLIZA:** Bordaletik heldu nauk, xuxen xuxena... Pentsatzen ahal duk zertako?

**ERRETORA:** Ez amesten ere.

**POLIZA:** Ez dakika poliza buru naizela Bordalen?

**ERRETORA:** To, banakian polizgoan hintzela, bainan ez nun eta zer gradutako. Zer heldu hiz beraz?... Krime horrentzat?

**POLIZA:** Ba, hala heldu nuk... Euskara dakidalakotz, hemen gaindiko krimen argitzale ni nauk.

**ERRETORA:** Ez ahal duk usu, hemen gaindi, holako lanik.

**POLIZA:** To, ez duk beharbada sinetsiko, bainan egia hauxe duk: Euskal Herrian, bertze edozoin eskualdetan bezenbat gizon hiltze gertatzen dela.

**ERRETORA:** Ba zera!

**POLIZA:** Egia hola duk. Erranen duzue, zuek, apezek: Euskaldun fededun... Bainan, berdin berdina, erran zuek: Euskaldun herradun... Odol bortitzekoa duk euskalduna, kasko gogorra eta tematsua. Eta, herran sartuz geroz, ez die debru batek hartzen euskalduna, bainan hiru debruk.

**ERRETORA:** To, ez nian holakorik uste.

**POLIZA:** Euskaldunak, bertute jabe gituk, bainan bertute heien infrentzuak, maiz hor ditiagu: Itzal handiak... Errak, hor baditek jendarmek mutil bat arrastatua. Kasik segurtamentua badiagu hori dela gizon hiltzalea... Artzainek baino hobeki

nehork ez baitu ezagutzen artaldea, zer mutil duk to, Anton hori?

**ERRETORA:** (*Zintzoki*) So egizak, hi... Nahiago diat hire galdea ixilik utzi... Ni hemen, denen aita nauk, eta, ez duk gomeni, aita bat ari dadien bere haurren salaturretan.

**POLIZA:** Egiazko euskaldun apeza haiz ba hi ere... Prediku lekutik berdin zernahi burutik behera erranen diozute zuen artaldeari, bainan sahetsetik norbait jazar ikusten baduzue artalde berari, ordu berean mutu bilakatzen zarete zuen artaldearen itzalez, eta hau zuen gerizan hartzen duzue.

**ERRETORA:** Ez ahal zaik hori gaizki!... Artzainaren eginbidea ahal duk, bate-tik artaldea akulatzea, bertzetik haren zaintzea otsoetarik.

**POLIZA:** Zer nauk, ni, otsotzat hartzen?

**ERRETORA:** Ba, nahi dukan bezala ene errana hartuko duk, bainan hire ofizioko gizonak ez zaizkiat laket, eta nahiago ditiat etxean baino auzoan, eta ahal bada auzo urrun.

**POLIZA:** (*Bizji-bizja*) Ez ahal zaik gaizki gaxtaginen harrapatzea eta punitzea?

**ERRETORA:** Ba ba... Bainan eni iduritzen, gaxtaginak atzeman estakuruan, aisegi dituzuela jendeak funditzen, sobera saltsa zikinak muntatzen, batzuetan hobengabeak kondentzen.

**POLIZA:** Zer dituk hik ere, erran-merran batzu egiatzat hartzen?... Pleini haut kazetak badauzkak katiximatat... Bixtan duk, gure ofizioan ere izan zituzkek, bertzetan bezala, gizon ustelak... Bixtan duk ere, batzuetan aztaparrak pixka bat pisuegi hedatzen ditugula gure menerat bildu ihizieri... Bainan, asko mandoren hezteko bezala duk, asko jenden hezteko ere. Zaharoaz bakarrik dituzkek bentzun.

**ERRETORA:** Zaharoa gauza itsua duk... Gaxtaginen aitorrak dituzuela hari esker ardiesten, zombaitetan ba. Bainan, berdin hobengabeak zafrazten, eta, beldurtieri hala direnak eta ez direnak aitor arazten.

**POLIZA:** Zer nahi duk... Ez dik guriegi behar gure ofizioko. Atrebentzia behar dik izan desmasia pixka bat egiteko, hartarik zerbait on jaltzeko esperantzan.

**ERRETORA:** Zuen ofizioko ez dela guriegi behar, diok, eta nik zioiat: Ez eta ere kontzientziaz kilikegi... Hik eta nik, katiximan ikasi ginian gaxtakeria ez dela haizu, egina bada ere handik zerbait on jaliko delakoan... Itsurat punitzea ez duk haizu, nonbrean hobendunak barne izanen direlakoan. Ez ibil



gaztigurik, gaxtaginak atzeman artio eta hek punitzeko bai-zik.

**POLIZA:** Ez gaituk airerat nornahi zafraka lotzen... Frogak eskuratu ondoan, aintzinat ukatzen ari direnak ditiagu hezten... Dena den, ez duka beraz hire iduripenik, nork egin duen hemengo krima hori?

**ERRETORA:** Ez den gutienik ere.

**POLIZA:** Bon, hago beraz mutu... Atzemanen ditiat mintzatuko direnak.

**ERRETORA:** Agian zuzenetik mintzatuko zaizkik. (*Atea joiten dute*) Aitzina...

**TARTALET:** (*Sartu ordu, ezin atertuzkei mintzo*) Jaun Erretora, azkenean gertatu da gertatu behar zena... Segur baino segurago naiz, hek, bai hek egina dutela krima hori.

**ERRETORA:** (*Fermuki*) Tartalet, otoi zaude ixilik.

**POLIZA:** Zer ixilik?... Mintza zaite garbiki, jauna... Zer dakizu?

**TARTALET:** (*Dena sinu, Polizari mintzo*) Ba, jauna... Hori buhamen lana da dena... Joan den aldiak ikusi ditut nihaurek hor buhameak pasatzen. Eta gero, gure auzoan oiloak eskatu ziren... Eta, bat, oilo koloka... Ba, horiek jaten dituzte oro... Eta, ez duzu gero luma bat ere atzemanen... Gordetzen dituzte-eta lurrean... Ba, ziloan sartuz... horiek guziak behar litezke kasatu hemendik... kasatu, entzuten duzu... kasatu.

**POLIZA:** Bainan, nork hil du gizon hori?

**ERRETORA:** Oren baten buruan, orai bezenbat jakinen duzu.

**TARTALET:** (*Tirabala mintzo*) Nork daki nundik heldu den arraza hori... Beren asto eta pottokak nundik biltzen ote dituzte... Eta horiekin kasu eman behar da gero lapintegieri ere... Guri ere ereman dauzkute bi lapin... Arra eta emea... Oraino bat utzi balute... ez... biak ereman dauzkute... Emea utzi balute bederen... Haren umeak hor izanen ginituen... Joan den aldiak egin zituen zazpi... (*Beti aintzina mintzo dela*)

**POLIZA:** Zer da?... Teilatutik arras harrotua?

**ERRETORA:** Juja zuhaurek.

**TARTALET:** Horien atso horiek ibiltzen baitira beren zaia handiekin, hola beztitzen dira, gauza ebatsien hobeki gordetzeko. Nork daki zer ez duten gordetzen zaia horien azpian... Eta, zorte tzarrak ere botatzen dituzte... Lanjerosenak dira atso begi gorriak... Azken aldi batez, holako batek gure artaldeari so egin-eta, in nomine santian hiru ardi hil zauzkigun... Ba,

hiruak ernari ziren... Ez zuten ez trefla beroegitik jana, erran izan duten bezala... Haren begi kolpe gaxtoa zuten ukana.

**ERRETORA:** Errazu, Tartalet.

**TARTALET:** (*Beti bereari*) Eta, horiek baino gaxtoagoak, gure artean bizi diren batzu dira... Horien odol berekoak. Hasteko, Etcheberry eta Salaberry deitzen diren guziak horien arrazatik dira... Badakit nik hori... Eta horiek denek elgar aditzen dute, oilo eta lapinen ebastea... Eta gero, partzuerkoan jateko.

**ERRETORA:** Errazu Tartalet.

**TARTALET:** Bantzut, jauna.

**ERRETORA:** Ohartzen naiz zernahi berri baliosen jakintsun zarela... Otoi zoazi berehala denen salatzerat jendarma xefari... Zerbitzu gaitza egingen diozu.

**TARTALET:** Ba, banoa... Banoa berehala... Jakinen ditu oro... Eta ez ditut oraino oro aipatuak. (*Jalitzzen da*)

**POLIZA:** Zer euri elementa, to, gizon hori.

**ERRETORA:** Ba, horrek hire baratzea arrosatuko dik nahi dukan bezenbat, bainan lili guti han pusaraziko.

**POLIZA:** (*Irriz*) Hobe diat beraz aldaratzea hemendik. Lekuko bat arras idorra, bertzea ezin atertua, biek ere ez ditek ene baratzea biziki onduko. Bainan jinen nauk oraino, hi konbertitzerat ez bada, bederen edari on huntarik jastatzerat.

**ERRETORA:** So egizak... Plazer bat egin behar dautak... Ene etxeko sarjalitzeak beti eta bereziki egun hautan zainduak baitira inguruko begiez —eta ez baitut nahi krima horren saltsan barne— otoi, hemen, afera hunek dirauno, guti agert hadi... Hau bururatu-eta, orduan ba, nahi dukan bezenbat gurutzatuko gaituk.

**POLIZA:** To, ez haut gehiago ezagutzen ere... Hi, eskoletan ginelarik hain irriskorra, hain axolarik gabe baihintzen, hor hiz Salomon zaharra bezain zuhur eta zintzo bilakatua.

**ERRETORA:** Trufa hadi nitaz, nahi baduk, bainan ez gaituk batere biak kasu berean... Hik ez duk hemen pitz galtzeko, ez baituk hemen pitz bildurik. Nik, jendeen konfientzia eta errespetua, bilduak ditiat eta ez ditiat nolana hizka saltzekoak, hainitz lan eta urratsen ondorioak baitira... Hi, zombait eguentzat hiz bakarrik hemen... Hire ziliportak hirekin joa-



nen dituk... Eneak aldiz enekin geldi litezkeek, hemen egoitekoea bainiz.

**POLIZA:** Bon, bon, ontsa duk... Goazen beraz bakotxa guretik... Hi ixiletik eta ni burrunbatik.

**ERRETORA:** Ba... Haatik, ikasak, hik, ixiletik maiz lan baliosagoa egiten dela burrunbatik baino.

**POLIZA:** Ontsa duk, Salomon zaharra hi... Eta bertzaldi bat artio. Eta, atxik-atak edari hortarik xorta bat, bertzaldiko ere... Hauta baituk hori.

**ERRETORA:** Hitzematen diat, gormant tzarra, hi ere... (*Berexten dira. Bakarrik*) Hola hobe duk, erretor... Ez hadila sobera eskuz esku ager munduko buruzagiekin... Oroit nola den erran zahar: Jainkoa eta Zezar —biak parrean par— errespeteta eta maita elgar —ez elgarri jazar— ez eta ere elgarrekin sobera barna sar... Hola gobernatuz ba Jainkoaren eta ba Zezar-en alderdia hobeki jaliko baitira munduan. (*Berriz ere, bizar egiteari apailatzan da... Atea jotzen dute*) Nor da hor, berriz ere?... Aintzina...

**GANIX:** Agur, jaun Erretora.

**ERRETORA:** Agur, Ganix.

**GANIX:** Jaun Erretora, hemen naiz berriz ere... Arrazoin zinuen. Kontzientziaren danga baino gaztigu izigarriagorik ez da. Kofesioan penitentziatzat erran dautazu, lau meza urtean eman arazteko hil dutanarentzat, eta gainerat harentzat hiru «Agur Maria», egun bakotx egiteko. Bainan kalte ekarri diotet ere ene alabari, hor baitago nigarrez bere ezkontzeko laguna preso altxaturik... Kalte ere egin diot Antoni, preso baita eta naski zafraka baiterabilkate enegatik. Horieri egin kaltea nola behar dut erreparatu?

**ERRETORA:** Hortarik ari bazira, kalte egin duzu ere bertze asko jenderi: Lekukotzat deituak izanen direneri, pazka eman diozuten mihi gaxtoeri, hetaz jorratuak izanen direneri. Eskandala, iturri bat bezala duzu... Iturria idekiz geroz ez du balio ibiltzea handik jali uraren ondotik... Penetan ezarri dituzunentzat egin-azu, behin nik eman penitentzia, eta gainerat, bertze ahal dituzun guziak... Eta, zaude deskantsuan.

**GANIX:** (*Bibotza joa*) Horiek guziak, ene faltaz... ene falta handiaz... Ha, ez naiz sekulan salbatuko. Gisa huntako bizia ez da zakurren-

tzat ere on. Hola bizitzea baino hobe da bere burua garbitzea ere.

**ERRETORA:** Errexago da arbol kolpatua, sendatzea baino pikatzea. Bati koleraz bizia pikatu diozula-eta, ez ahal diozu orai, zure buruari, etsimenduz, gauza bera egingo? Jainkoa ona da eta haur prodigoari beti besoak zabalik dauzka. Behazu otoi Jainkoaren oneziari eta ez haren azoteari, eta otoi orai, zoazi zure lanetarat... Zure gogoa alha dadiela ez zu baitan, bainan inguruko alhapidetan.

**GANIX:** Errexago da erraitea, obratzea baino. (*Jalitzan da*)

**ERRETORA:** (*Bakarrik, bizar egiteari berriz ere lotuz*) Ha, zonbat mota giren mundu huntan. Batzuk zetabe larriegia hartzen beren kontzientziaren ikertzeko... Bertzek aldiz, xehegia. Izariko zetabea emaguzu, izarikoa, Jainko maitea... (*Atea jaiten dute... erretora kexu*) Aintzina...

**GANIX:** Berriz ere, ni naiz.

**ERRETORA:** Bon... Zer duzu oraino ere? Ez duzuia aski argitasun ukanik?

**GANIX:** Barkatuko duzu, jauna, bainan betbetan oroitu naiz... Nago kofesio ona egin ote dudana... Urriki behar da izan Jainkozkoa... Nik aldiz krimaz urriki dut, ez baitezpada Jainkoarengatik, bainan ekarri dauzkidan ondorio gaxtoengatik... Beraz, urriki ez dut Jainkozkoa, bainan enezkoa, eta ene kofesioak ez du deus balio.

**ERRETORA:** (*Bizi-bizia*) Ba... Zure kofesioa bali da, eta hura berriz eni ez aipa... Jainkoaren ordainarengat jin zirenaz geroz, hortarik ageri da Jainkoari nahi ziniola barkamendu galdatu... Kontrizioezko aktan ere hala erran duzu «Ene Jainkoa, handizki damu dut zu ofentsaturik»... Aditzen duzu: «Zu ofentsaturik»...

**GANIX:** Ba, eta urriki da, berriz ez erortzeko xede fermu bat izaitea... eta nik aipatu dautzut, hura hil-eta, orai ene burua behar dudala garbitu... Beraz ez nuen xede fermurik berriz ez hasteko, ene burua hiltzea aipatu dudana geroz.

**ERRETORA:** Bi dira erraitea eta egitea... Erran baduzu, garbituko zinuela zure burua, bainan barne barnetik bertzerik pentsatzen zinuen... oraino bizi zirenaz geroz... Eta orai, zoazi otoi hemendik eta lot zaite zure egun guzietako laneri.

**GANIX:** Ontsa da, jauna... Ontsa da... (*Jalitzan da*)



**ERRETORA:** Zer debru... Ez duta ene kokotsari bizarra kentzeko astirik ere ukanen, etxe huntan... Pazientzia behar dela bekatorosekin, nahi dut. Bainan, pazientzia soberakina ez ote da ahulezia. Hasteko, gisa hortako izpirituak, izpiritu eri batzu dira... Mirikuen da horien sendatzea, apezen bezenbat. *(Atea jotzen dute... Kexu)* He... Oraino ere... Bera balin bada, igortzen dut ba airez aire antzara ferratzerat. *(Idekitzen du eta ezitzen da)* Ha, zuek zineztena?... Agur, andereak... *(Sartzen dira Jana Mari eta Margo)*

**BIAK:** Agur, jaun Erretora.

**ERRETORA:** Jar zaitzte... Zer zarete? Denak airean auzoko gertakariekin... Oraintxet, jalia da hemendik zuen Ganix.

**JANA MARI:** Ba, jauna, atean gurutzatu gira... Badakizu, dudarik gabe, hiltzalea itzalean dela.

**ERRETORA:** Ha ba... Nor da?...

**JANA MARI:** Anton, gure suhi behar zen xarmant hori.

**ERRETORA:** Segur zirea?... Aitortu duia?

**JANA MARI:** Nor nahi duzu izan dadien? Engoitik libratua behar zuten, ez baliote deus itzalik atzeman.

**ERRETORA:** Ezkont banak igandean emaitakoak baintuen, hobeko ditut beraz luzatzea.

**JANA MARI:** Alabainan... Ez dituzu luzatu behar, bainan betikotz urratu. Hunek eta Ganixek kontra egiten zautaten... Bainan ez zen ezkontza hori ene gostukoa.

**ERRETORA:** Eta zuk, Margo, zer diozu? *(Margo ihardetsi gabe, nigarrez lotzen da)*

**JANA MARI:** Ez enea delakotz, jaun Erretora, bainan ene alaba ez duzu gero edozoinetarik... Gisa hortarat altxatua ere dut... Ez du hunek kurriada faltsorik eta kontzientzia garbi hartuko du hau, hunekin ezkonduko denak... Etxea, etxeko lanak, igandetako ateraldi hori elizarat, horra hunen bizia. Ez dut bertze nehorat alhatzerat utzi. Hortako, ez nuen mutiko hori, biziki ene gogokoa... Laxoegi baita hori, jaun Erretora... Erretirak hala hola... Noizean behinka igandetako meza ere karrika egiten... Eta puxka bat, bere molde eta solasetan, larria... Gure hunek, horrekin sofritu behar zuen... Hortako ez nintzen ezkontza horren alde.

**ERRETORA:** Bon, ontsa da, Jana Mari... Zu mintzo zira, bainan alabari da bere gogoaren agertzea. Adinerat heldua duzu... Horren barneko berri nahi nuke jakin, bereganik.

**MARGO:** *(Erdi nigarrez)* Ez dakit zer erran.

**JANA MARI:** Ba ahal dakit, nik, jauna, ene alabaren berri. Emazterik etxean ez zutela-eta, aita semek hau ontsasko enganatua zuten, beren etxean sartzeko... Emazte bat, edo hobeki sehi bat beretzen baitzuten... Ikusten duzua gaixo haur hau, han bakarrik, bi gizonen zerbitzari.

**ERRETORA:** Bon, beraz, banarik ez dut emanen.

**JANA MARI:** Alabainan, jauna... Ez ahal zinuke nahi ene alaba krima egile baten emazte bilaka dadien.

**ERRETORA:** So egizu, Jana Mari... Zuk diozu Anton dela kriminela... Nik, oraino segurik ez dut holako segurtamenik... Bertzalde, zure alaba kontseila dezagun, ba zuk eta ba nik... Bainan berari da deliberamenduen hartzea bere geroari buruz... Mementokotz, ez daki berak zer egin... Ez dezagun bortxa... Utz diezogun gogoen egiteko epea... Eta, berak hau-tatu bezala izan dadiela horren harat-hunata...

**JANA MARI:** *(Pindartua)* Ho, jaun Erretora, uste nuen, hola altxatuz geroz bere haurra, solas goxoagorik hartze zuela ama batek, zureganik.

**ERRETORA:** Ez dautzut errespeturik galdu, bainan erakutsi. Norbaiti errespetua erakusten baita hari egia erranez, eta ez solas lausenkari eta zilinga batzu hari adieraziz.

**JANA MARI:** Ontsa da, jaun Erretora... Ez da zure erakaspena ahantzia izanen... Zato, Margo. *(Jalitzen dira, mutur)*

**ERRETORA:** *(Kexu, berriz ere bizarrari lotuz)* Hanbat gaxto ez bada kontent... Emazte hori profeta bat bezala mintzo zautzu... Bere alaba saindua duela... Uli bat ba hobeki... Ez da ontsa alabak sobera laxoegi altxatzea, bainan ez eta ere tinkiegi... Laxoegi utzia harrotzen da eta galtzen... Tinkiegi altxatua berriz, edo eñul bat bilakatzen edo azpiz eta gordeka ditu hartzen ageriki har ez dezazken libertateak... Horren alaba ez dakit, funtsean, batere zer den... Uli bat iduriz... Nun ez den: Kanpo ur geldi, eta barnez, erakitan ari. *(Atea joiten dute... Izigarri kexu, ahapetik)* Bon... Debrua sar... Ha, barka, Jainko maitea... *(Idekitzen du)* Te... Zu hemen Luix?



**LUIX:** (*Hotszki*) Ba, jaun Erretora, bertze askoren ondotik, ene solasek ere izanen ahal dutela entzule, zure etxean...

**ERRETORA:** Zertarat heldu gogo duzu?

**LUIX:** Ene semea ez omen da bakarrik preso altxatua, bainan hemendik jali berri den andere horrek dionaz, hura bera omen da gizon hiltzalea... Zure ahotik hala ikasia omen du.

**ERRETORA:** Ez dut nik holakorik aipatu... Saltsa egileri jazar zaite eta ez eni.

**LUIX:** Agian, jauna, agian... Bainan, denenak entzun behar baitira, jakin-azu, Mixel Larralde, gure etxetik afaldu-eta urrundu delarik, ba semea eta ba ni oherat sartu gira... Eta, gure etxetik, nehor ez da goiza artio higitu... Horra egia...

**ERRETORA:** Eta, zertan da Anton?

**LUIX:** Anton, jandarmek berekin hartu eta joan dutela badakit. Zafraka ibili dutela ere, fama jali dute. Aitortu ere duela. Funtsik deus ez dakit... Bainan, ni segur naiz, ene bortz eriak esku muturrean ditudan bezain segur, ene semeak ez duela pits ikustekorik krima hortan, pits.

**ERRETORA:** Jakin-azu, Luix, zure semeari ene estimua begiratzan diodala. Akusatua dena ez baita baitezpada hobendun. Ondoko egunek eginen ahal dute argi...

**LUIX:** Ba... argia... Ez dut, nik ere, bertzerik galdatzen.

**ERRETORA:** Anton ikusiko duzua?

**LUIX:** Ahal badut ba, eta lehenbailehen.

**ERRETORA:** Errozu Erretora maiz harekin dela gogoz eta harentzat otoi-tzean ari dela.

**LUIX:** Milesker, jaun Erretora. Estimatzan dut zure egitatea... Eta laster izanen ahal dut harekin buruz buru egiteko padara.

**ERRETORA:** Agian, agian, Luix.

**LUIX:** Agur, jaun Erretora.

**ERRETORA:** Ba, agur Luix... (*Jalitzan da... Bakarrik*) Ha, zer behar ote daukute jali tribunaleko gizonen? Mihi gaxtoek jada egina dute beren jujamendua... Anton eta Anton daukate hobendun... Ha, mihi saltsa... saltsa ikaragarria... (*Atea jotzen dute... Kexu*) Hee... Batere ez diot idekitzen... Ez da hau bizi bat: Beti norbait atean. Aski du joileak bertze tenore batez jitea.

**GANIX:** (*Sartuz*) Jauna, sartzeko erran duzua?... Ez dut pitsik entzun.

**ERRETORA:** (*Idor*) Ez... Ez dut sartzeko erran, bainan orai barnean zira.

**GANIX:** Barkatu jauna, kofesatu nahi nuke.

**ERRETORA:** Ez... ez zaitut kofesatuko... Errana dautzut zure bekatuak barkatuak dituzula. Aditzen duzu: Azken absoluzioez barkatuak... denetaz kito zirela.

**GANIX:** Beraz ez du balio penitentziarik egin dezadan, denetaz kito naizenaz geroz.

**ERRETORA:** (*Fite eta samurki*) Bekatuak baditu bi ondorio. Samur ezartzen zaitu Jainkoarekin, eta zordun... Absoluzioea ukanez geroz, ez zira gehiago samur Jainkoarekin, bainan zordun, ba... Eta zor hori, mundu huntan ez bada bertzean behar ko duzu pagatu, zerurat sartzekotz... Orai bazirela zertako behar duzun penitentzia egin?

**GANIX:** Halere nahi nuke kofesatu... Ene buruaren hiltzea pentsatu dudala ez baitut behin ere kofesatu.

**ERRETORA:** (*Kexu*) Ez, ez eta ez, ez zaitut kofesatuko... Zure izpirituko nahaskeriak bere gisa utz-atzu eta otoi zoazi etxeko lanetarat... Baitut nik ere zer egin zutaz bertzalde.

**GANIX:** Bon, zure gain hartzen dituzuia beraz ene arrangurak?

**ERRETORA:** Ba, ene gain hartzen ditut... Bego denak ene gain... Eta orai, zoazi hemendik, eta ez etor hunarat bederen hamabortz egunez. (*Atea idekitzen dio*)

**GANIX:** Bon, eta ene burua garbitzen badut, hura ere zure gain.

**ERRETORA:** Bai eta ere... Orduan bat gutiago eta halabiz... (*Atea betsi eta*) Atx... Soberasko erran diot... Barka, Jainko maitea... Zer nahi duzue? Aski delarik aski da... Beti sainga bera. Eztitasuna behar dela bektorosekin... ba, ba... Predikatzea da errexenik... Obratzeak emaiten dauku lan...

OIHALA





## BIGARREN GERTALDIA

### Joka-lekua:

Poliza bulego bat.

**POLIZA:** Bon, behar ditugu beraz mintzarazi... Hor direa denak?

**JENDARMA XEFA:** Ba, hiru barnetan ezarriak ditugu, elgarrekin ez diton gurutza.

**POLIZA:** Ez da dudarik, hiltzalea horietan da... Ean, berriz aipa-zkitzu xheki heriotzearen xehetasunak.

**JENDARMA XEFA:** Hila bakarrik bizi zen... Bere ardi bordan zuen bere bizitegia. Arratsarekin, Antonen etxean zen gaztain erre jaten. Handik erretiratu da ontsa jan eta edan ondoan, hametak hirian. Goizean, Antonek du atzeman haren gorputza borda aintzinean. Aizkoraz hila zen eta lastoz eta petrolaz errea.

**POLIZA:** Zoin tenerez ote?

**JENDARMA XEFA:** Gauerdi aldean, ikertzaileen arabera. Goizeko zazpitan, Anton etorri da gu abisatzerat. Bordan ez dugu hiltzalearen arrastorik atzeman. Mixelen ganberan ez zen deus arroturik. Bere diruak han zituen oso osorik. Ez dute beraz ebasteko hil. Nehork ez dio etsairik ezagutzen. Ez zuen ere emaztekilakorik. Hortako pentsatu dugu kalapita zombaiten ondolik norbaitek, bere errabian, garbitu duela.

**POLIZA:** Ba... Ez ditake bertzerik hor... Eta kalapitak, edariaren ondorioak baitira maizenik, jakin duzua hainitz edan ote zuten afa-ritan?

**JENDARMA XEFA:** Ba... Lau pinta hiruen artean.

**POLIZA:** Eta, Antonek, zer aitortu du orai artio?

**JENDARMA XEFA:** Dio Mixel joan-eta, oherat sartu dela... Goiza artio lo egin duela. Eta goizean, ardi tratu bat elgarrekin bezperan hasia zutelakotz, bordarat joan zaiola... Eta hola duela harrapatu haren gorputza.

**POLIZA:** Ba... Maiz kriminela krimako tokirat berriz itzultzen da.

**JENDARMA XEFA:** Krima bezperan eta biharamunean, ez du euririk egin.

Gauaz ba aldiz, frango polliki ere. Eta preseski, Antonen etxean atzeman ditugu gapelu, soineko arropa eta botak, arras bustiak eta busti berriak. Erran dauku, zombait egun hartan zokorat aurtikiak zituela puska horiek, bainan galtzen hegaletan eta botetan baziren belar perde eta iratze luma batzu, fresko freskoak... Beraz, puska hek, soinetik kendu berriak zituen... Hortarik jujatu dugu hura zela hobendun eta segidan arrastatu dugu.

**POLIZA:** Eta, Antonen aitak zer dio?

**JENDARMA XEFA:** Dio, haren etxean ez dutela hilarekin deus kalapitarik pasatu... Arras adixkide elgarretarik berexi direla eta aita semeak berehala ohean sartu direla... Bertzalde, ez dugu inguru horietan nehor ikusten, Antonez kanpo, holako egitate baten kapable litekenik... Hilaren auzo hurbilena, Ganix eta hunen familia, biziki zintzoak dira... Ganix bera izaitekotz bitzisko aire, dena sinu eta otoitz... Horren alabarekin ezkontzekoa zen Anton. Anton aldiz, freskoan gizona bada, edan-eta arras zakartzen denetarik da... Jada, hunarat ekarria izan dugu kolpeka batzuen ondolik... Erretiretan, beti nahaskerian behar zuen ari.

**POLIZA:** Ba... Ez da dudarik... Hori dugu gure ihizia. Orai da, nola aitortzerat bilduko dugun.

**JENDARMA XEFA:** Jada egin ahalak egin ditugu aitoren arazi nahiz, ba eztitik eta ba bortitzetik.

**POLIZA:** Jinen da ba noizbait pilota punparat... Mando bihurrienak hezten dira, aski akituz gero... Bon, lotuko gira beraz lanari. Eta gelditu gabe, hogoitalau oren, eta hogoitalau oren ez badira aski, bertze hainbertze edo gehiago, pasatuko ditugu kitzikan... Aterako ahal diozu zerbait... Zu ariko zira eztitik... Bortitzaren egitea aldiz, bego ene gain.

**JENDARMA XEFA:** Ontsa da.

**POLIZA:** Bon, sar araz-zazu Anton. *(Bera apailatzen da bulegoan, alegia pape-retan galdua. Anton sartzen da, eskuak estekan, kara akilua. Poliza xutiturik, apur bat hunarat eta hunarat dabil, bitzik jali gabe. Bortizki mintzo)* Hire etxean aurkitu arropa eta bota busti hek, noiz bustiak zitukan?

**ANTON:** Zombait egun lehenago.

**POLIZA:** Zombait egun lehenago? Zonbat egun?



**ANTON:** Hiru lau egun.

**POLIZA:** Nun izan hiz arropa horiek hola bustitzeko?

**ANTON:** Ardien biltzen, mendian.

**POLIZA:** (*Boza saminduz*) Krima aintzineko zortzi egun horietan, ez dik euririk egin... Nola dituzkek busti arropak, euririk egin gabe?

**ANTON:** Ihintza bazen eta iratzeak handi dira.

**POLIZA:** Noiztik ihintzak bustitzen ditik espaldak eta buruko boneta? (*Anton ixilik dago*) Emak erreputa.

**ANTON:** Izerdia ere hor da.

**POLIZA:** Noiztik izerdiak bustitzen ditik arropak kanpotik eta barnetik xuko uzten? (*Anton ixilik dago*) Emak erreputa. (*Anton beti ixilik... Fermuki*) So egi-zak. Ez dik balio egun argia bezen argi den gauza baten uka eta uka aritzea... Hik hil duk Mixel... Errak ba... Paper hau sina-zak eta fini.

**ANTON:** Ez dut nik hil... Ez dut deus sinatuko.

**POLIZA:** (*Orroaz*) Zer!... Ala zer uste duk? Hire kasko gogorkeriak salbatuko huela? So egi-zak... Azken aldikotz, sina-zak paper hau eta bakea emak... To, hemen sina-zak. (*Antonek papera aurkitzen dio. Polizak bi zafako ematen diozka eta iletarik tira aldi bat... Izigarri kexu*) Zer dituk zirtzilkeria horiek? Jakin-zak espantuen denbora iragana dela eta, onez onean ez baduk aitortu nahi, bertze molderik ere hartuko dugula... Paper hau sinatuko duk edo bertzenaz hanbat gaxto hiretzat.

**ANTON:** Ez, ez dut sinatuko.

**POLIZA:** (*Irri tzar kexu batekin*) Ha, ez duk sinatuko... Ikusiko diagu... (*Deituz*) Jaun Brigadiera... (*Hau agertzen da*) Ez omen du jauntto hunc bere aitormena sinatuko... Zuk ezagutzen baituzu, nik baino hobeki, apur bat uzten dut zure gomendio. Agian plegatuko zautzu eni baino hobeki. Agian... Bere onetan... Aitor arazteko salan ez dadien pasa... Aditzen duka?... Hire onetan... (*Irri mehar tzar batekin jaltzen da*)

**JENDARMA XEFA:** (*Eztiki*) Beldur nuk hiretzat... Badakik, hobe duk gure eskutan hizeno, hire aitoren egitea... Horien eskuetan, izigarriak behar baihuzke pairatu... Berdin, galdua hiz... Hire arrokek erakusten ditek, gauaz kanpoan hintzela.

**ANTON:** Ez dut nik nehor hil.

**JENDARMA XEFA:** Ukatuago eta galduago haiz... Aitortzen baduk berehala dena den, tribunala eztiago hukek hiretzat... Zer nahi

duk?... Deneri gerta zukek apur bat burua galtzea, eta behar ez diren jestuen, orduan ibiltzea... Lañoki aitortuz, beharbada hiru lau bat urterekin kito hinteke... Bainen ageri garbiaren kontra hola tematuz, hire bizi guzikoa biltzen ari haiz. (*Anton ixilik apur bat*) Hortaratu bahaiz, dudarik gabe, bahituen hire arrazoinak ere... Zer huen?... Zerbait makur tratutan Mixelekin?... Diruari atxikia zuan gero Mixel... Zer hau?... Zerbaitetan enganatu?

**ANTON:** Mixelek eta nik ez dugu sekulan deus makurrik izan.

**JENDARMA XEFA:** Uste baino kolpe dorpeagokoa emanik, ikusi dukalarik lurrean hila, nik uste, ez hakien gehiago zer egiten huen ere... Eta beharbada, ez haiz oroit ere ondotik zer egin dukan.

**ANTON:** Ez dut nik Mixel hunki, ez bizirik, ez hilik.

**JENDARMA XEFA:** Pena diat, egiazki pena, hola debaldetan gogor egoiten baihaiz. Gertatua hain duk argi eta garbi... Aitor edo ez aitor, berdin kondenatua izanen haiz... Arinago jali hinteke, bertzela plantatzen bahintz... Oroit hadi pixka bat hire aitaz... Oraino hire laguntzaren beharretan duk... Eta, abiatu hizan bidez, ez diok lauzkatze handirik ekarriko haren zahartasunari...

**ANTON:** Ez dut nik hil Mixel.

**POLIZA:** (*Agertuz*) Eta?... Zentzatu dea?...

**JENDARMA XEFA:** Beti ukatzen du.

**POLIZA:** Aitorraren beharrik ez dugu jakiteko ean den hobendun, bainen jakiteko bakarrik zonbatetaraino den hobendun. Ez bada entseatzen bere hobenaren arintzerat, berak pekatuko ditu, kondenatua izanen baita hobendun oso gisa. (*Keinu egiten dio joan dezan Anton. Jendarma Xefa berriaz agertzen da*)

**JENDARMA XEFA:** Frango kasko gogorra izan behar du.

**POLIZA:** Ba... ez luke euskalduna behar bertzela izaiteko... Bainen hasta-pena du oraino... Lotuko girelarik, hamar hamabi orenez galde eta galdeka, lausengu eta zanpaka, lerratuko da ba hori ere egiaren aitortzerat bertze asko bezala... (*Atea jotzen dute*)

**JENDARMA XEFA:** (*Ideki*) Hi hiza, Tartalet, zer nahi duk?

**TARALET:** (*Arrunt harrotua*) Jauna, ez da dudarik, orai segurtamen osoa dut... Mixelen hiltzalea...



**JENDARMA XEFA:** Bon, arras ontsa duk... Baginakian jada... Orai, habil etxerat...

**TARTALET:** Ez... Nahi dut mintzatu... Nik baitazkit zuk ez dazkitzunak...

**JENDARMA XEFA:** Hobe, hobe... Geroxago entzunen haut... Orai badiat bertzerik egiteko.

**TARTALET:** Berdin du... Badakizu, atzo arratsean, ostatuan baitzen, gizon beltz buhame hura... Harek hil du Mixel. Nihaurek ikusia diot holako kanibeta marraza bat... Ba... Sakelan dauka gorderik... Eleketan norbaitekin has-eta, eskua kanibetaren gainean pausatzen du... Hortakotz du maiz esku bat sakelan... Beldur da-eta... Eta gizon hura, hemen zen, gure herrian, Mixel hil duten gauean...

**JENDARMA XEFA:** Bon, arras ontsa duk... Horiek guziak xehetasun baliosak dituk.

**TARTALET:** Zaude... Ez dut oraino dena errana... Gizon horrek seinale du behakotik norbait hil duela... Behako bat badu ikaragarria... Hasteko buhame guziak begi gaxtokoak dira... Ni, ez nitzaiole hurbiltzen ere. Beldur bainaiz zorte tzar batez, zentzua galaraziko dautatela... Horiek behar litezke hemendik kasatu... Denak kasatu... Bertzenaz ez dugu oilorik ere hemen haziko... Hasteko, oiloak berak izitzen dira buhameak hurbiltzean... Gure oiloek segurik, mirua ikusten balute bezala, ihes egiten dute.

**JENDARMA XEFA:** Aski, Tartalet, alo, aski.

**TARTALET:** Zeren, jauna, oiloek, guk sudurretik bezala, gauzak mokotik senditzen dituzte... Eta buhamek badute usain berezi bat...

**POLIZA:** (*Orroa*) Aski... Ez die buhamek Mixel hil, bainan hik.

**TARTALET:** (*Ikaratua*) Hee?

**POLIZA:** Ba, hik hil duk. (*Ukailoa eginez*) Aitor zak... Hik hil duk Mixel... Hik, ba hik... Aitor zak edo burua arrailtzen daiat, aitor zak...

**TARTALET:** (*Ikara daldaretan*) Ha, ni ez hunki... Ai, ai, ai... Ba, ba, nik hil dut Mixel, barka, barka... Ni ez hunki...

**POLIZA:** Bon, ontsa duk... Barkatzen daiat, bainan habil etxerat berehala hemendik...

**TARTALET:** Ai, ai, ai... Ba, ba gogotik eta fite ale... Ai, ai, ai... (*Jalitzen da... Bertze biak irriz*)

**POLIZA:** Pena da egiazko hobendunek ez baitute hain laster aitortzen. Bon, segi dezagun gure lana... Bertze auzokoak ere behar ditugu solaskatu... Sar-araz zazu otoi Antonen aita...

**JENDARMA XEFA:** (*Jali eta berriz agertuz*) Huna Luix, Antonen aita.

**POLIZA:** Badakizu dudarik gabe, zure semeak bere krima aitortu duela...

**LUIX:** (*Izigarri hunkitua*) Zeer?... Ene semeak... Ez da posible... Ez da posible...

**POLIZA:** Konprenitzen dut zure pena... Bainan hortaratu bada, nik uste baditu hobena arintzen dioten arrazoinak ere... Ez zirena biak pixka bat edanak, arrats hartan?... Ez dioia Mixelek zure semeari kalapita bilatu?... Ez zutena lehen ere zerbait makurbide?... Zuri da zure semearen alde mintzatzea...

**LUIX:** Izigarrikeria... ez... ez dugu behin ere pitsik pasatu Mixelekin... Ez nik eta ez semeak...

**POLIZA:** Krimako gauean, ez duzuia senditu semea etxetik jalitzen?

**LUIX:** Ez... afal ondoan, oherat joan gira, usaian bezala... Biharamun goizean dugu berriz elgar ikusi...

**POLIZA:** Ez duzuia zuen zakurra saingaz entzun gauaz?

**LUIX:** Ez...

**POLIZA:** Alabainan, etxeko zakurrak, etxekoak ezagutzen. Ez duzuia zerbait erraiteko zure semearen alde?

**LUIX:** Ezin onartua, ezin sinetsia dutala holakorik egin duela.

**POLIZA:** Ontsa da... Berriz deitu behar bazaitugu ere, egonen zira oxtiko lekuan. (*Jendarma Xefak joaiten du eta berriz agertzen da*) Ez ahal da, krima hortan, aita hau semearekin partzuer?

**JENDARMA XEFA:** Ez dut uste... Ez dugu deus harrapatu hori kondena dezakenik.

**POLIZA:** Bon... Sar araz-zazu bigarren aita, auzoko hura. (*Ganix agertzen da Jendarma Xefarekin. Ganixi mintzo*) Anton hori ez duzuia behin ere entzun arranguraka Mixelen kontra?

**GANIX:** Behin ere.

**POLIZA:** Zure gostuko, zer arrazoinez du Antonek hola garbitu gizon hori?

**GANIX:** Ha, nik ez dakit... Nik nehor ez dut akusatzen.

**POLIZA:** Ez duzuia gauaz deus arrabotsik senditu? Zakur sainga, oiho edo beste?...

**GANIX:** Ez, pitsik.

**POLIZA:** Ez duzuia zerbait iduripen zertako Antonek egin duen krima hori? Ez zena bederen diru beharretan ezkontzeko?

**GANIX:** Ho, nik pitsik ez dakit.

**POLIZA:** (*Bortizki*) Zuk badakizu zerbait... Zuk badakizu nor den krima egilea.



**GANIX:** (*Ikaratua*) Hee?... Nik, nik?... Frogak nun dituzu?

**POLIZA:** (*Irri maltzur batekin*) Ez zitela ez aldixar, nik hori erran eta... Ez baitu balio... Zu ere sahets hortan egonen zira, berriz gure galdearen beha. (*Izquierda xukatzen duela, Jendarma Xefak segitzen du. Jendarma Xefa berriz agertzen da*) Ez du balio, sobera bururik hauts dezagun bazterretan hobenduketan. Hobenduna Anton da... Sahetseko aldaxkak bere gisa utzirik, trunko horri ari beharko dugu jo eta jo... Sar araz-azu Antonen espos lagun beharra... Norbaitek zerbait jakitekotz, horrek badakike... (*Margo agertzen da. Huni mintzo ezteki*) Antonek aitortu dauku bere krima. (*Margo nigarrez, bisaia gordetzen du*) Konprenitzen dut zure pena... Izigarri baita zuretzat, maite zinuena hortaritzen ikustea. Aipatu dautzua, azken egun hautan, zerbait arrangura artzainaren kontra?...

**MARGO:** Ez, pitsik.

**POLIZA:** Pits, pitsik?... Kasik ezin sinetsia da...

**MARGO:** Pitsik... Ez du horrek hil Mixel.

**POLIZA:** Ez horrek hil? Ez ginuke zure erranaren sinestea bertzerik galdatzen... Nun dituzu frogak?

**MARGO:** Nik, badakit.

**POLIZA:** Balin badakizu zerbait, mintzatzeko tenorea da... Ez bazira mintzaten, Anton galdua baita.

**MARGO:** Ahalge naiz.

**POLIZA:** Ahalge? Zertaz?

**MARGO:** Amak jakitea ez nuke nahi.

**POLIZA:** (*Lañoki*) Mintza zait deskantsuan... Hemen erranak, hemen egonen dira. (*Margo beti duda-mudetan*) Juramentu egiten dautzut... Nehork, entzuten duzu, nehork ez ditu jakinen zuk hemen erranak... Edo ez naiz gizona... Errazu lañoki dakizuna... Eta hitzemaiten dautzut egin ahal guziak eginen ditugula zu sustengatzeko.

**MARGO:** Ez zezaken Antonek hil Mixel... Anton enekin baitzen gau hartan.

**POLIZA:** Bon... Biba zu... Gaitzeko lekukotasun baliosa ekartzen daukuzu Antonen alde... Zonbat orenetan etorri da zureganat?

**MARGO:** Gauerdi gabe... Mixel etxetik despeitu-eta berehala...

**POLIZA:** Zonbat orenak artio egon zirezte elgarrekin?

**MARGO:** Oren bat. (*Dolutua erranaz*) Ho, ez nuke nahi nehork jakin dezan.

**POLIZA:** Ez zaitezela kexa. Sekretua ez da hemendik jaliko... Segur zirea gauerdi aintzin zurekin zela Anton?

**MARGO:** Ba, segur...

**POLIZA:** Eta, segur zirea oren bat zurekin egon dela?

**MARGO:** Ba, arras segur... Elizan ezkila ari baitzen hura urruntzean.

**POLIZA:** Bon, ontsa da... Ez aipa nehoi hemen erran dituzunak... Horiak guretzat atxik ditzagun, zuk eta zuk... Ixtaño bat egonen zira otoi sahetseko salan. (*Jendarma Xefak joaiten du eta berriz agertzen da*) Beraz, krima egin du gauerdi aintzin, horrenganatan joan baino lehen... Horra noiz jaliz zituen arropak bustiak... Bon, ari gira beti hobeki argitzen... Orai, sar araz-zazu horren ama. (*Jendarma Xefa sartzen da. Hari mintzo*) Krimako gauean, ez duzua entzun deus arrabotsik edo zakur saingarik, zuen etxe inguruan?

**JANA MARI:** Ez... pitsik, usiaiz kanpokorik.

**POLIZA:** Zure alaba ezkontzekoa zena Antonekin?

**JANA MARI:** Ba, maluruski.

**POLIZA:** Zertako diozu: Maluruski?

**JANA MARI:** Ageri baitzen zer zen Anton hori... Gizon abrea... Ene alaba, jauna, horri emaita, bildots bat otsoari emaita zen... Ene alaba, gure etxean, komentu batean bezala altxatua izan baita... Jaun erretoarak badaki... Ez nuen uzten jaun erreto-raren bilkuretara ere, lagunek ez zezaten gal. Enekin elizarat, eta enekin etxerat ibiltzen nuen.

**POLIZA:** Bizkitartean Antonekin noizbait egin ditu ezagutzak?

**JANA MARI:** Ba... Ontsa ene gogoaren kontra... Auzo gisa, horrekin, gurutzatzerat bortxatuak baiginen... Zikin horrek ene alaba enganatu du... Zer daki alabainan ene alabak biziaz? Gai-xoa!... Horrek daki ori, zer den gizon batekin bizitzea!...

**POLIZA:** Segur zirea zure alabak hain arrotz dituela gizonak?

**JANA MARI:** Jauna, ama batek ezagutzen ahal du bere alaba... Aski hurbildik segitzen ahal dut, horren urratsen jakintsun izaiteko.

**POLIZA:** Anton jiten zena zuen etxerat?

**JANA MARI:** Gure etxeko atea luzaz debekatu izan diot. Azken egun hautan, senarra eta alaba kontra baintuen, horien ezkontza onartu behar izan dut, eta haizu ziren elgar ikustea, bainan gure bixtan bakarrik.

**POLIZA:** Segur zirea ez zutela, zuen bixtaz kanpo, elgar ikusten?



**JANA MARI:** Noiz nahi duzu elgar ikus zezaten bertzela? Ene alaba beti enekin zen.

**POLIZA:** Gauaz ere?

**JANA MARI:** (*Ofentsatua*) Jauna, ez ahal duzu ene alaba piltzar batentzat hartzen! Jakin-azu gure familia betitik ohoragarria izan dela.

**POLIZA:** Bon... Hobe, hobe... Apur bat egonen zira zu ere sahets hortan. (*Jendarma Xefak joaiten da eta bera berriaz agertzen da*) Zer zau-tzu? Emazte hori, edo arras gutaz trufatzen da, edo xoro eder bat da. Nago ez ote den familia hori guzia, krima hortaz argitua... Nun ez diren partzuer. Bon, dei zazu berriaz ere Anton... Behar ditugu denak buruz buru ezarri. Ean zer dioten elgarri, entzun behar dugu. (*Anton agertzen da... Hari mintzo*) Hire gogoetak egin dituka edo beti hitz beretan hiza? Krimako gauean, etxetik jali hintzan edo etxean egon?

**ANTON:** Ez naiz etxetik mugitu.

**POLIZA:** Kasu emak zer derasakan... Berriz ere, eta azken aldikotz, emaiten daiat egiaren aitortzeko padara... Krimako gaua etxean pasatu duka, edo etxetik kanpo?

**ANTON:** Ez naiz etxetik mugitu.

**POLIZA:** Bon, ontsa duk... Sar araz-zazu Margo.

**MARGO:** (*Sartuz, asaldatua*) Hoo, Antton.

**POLIZA:** (*Bortizki*) Ixilik... Zuen arteko sentimenduak atxik-zkitzue zuentzat. (*Ezikiago*) Mintzatuko zirezte bakarrik, galdeari erre-pusta emaiteko. Zuk, Margo, zure hitzak ontsa pisatuz emanen duzu errepusta. Mixel hil duten gauean, zonbat orenetan jin da Anton zureganat?

**MARGO:** Gauerdi aintzinttoan.

**POLIZA:** Zonbat orenak artio?

**MARGO:** Oren bat artio.

**POLIZA:** (*Antoni*) Margok egia erraiten du ala ez?

**ANTON:** (*Apur bat ixilik egonez, mintzo da hotzki Margori*) Ez ginen hola hitzartuak.

**MARGO:** (*Nigarrez hipaka*) Ho, Anton... Nik uste nuen denak aitortuak zinituela... Hortakotz aitortu ditut denak, nik ere... Denak, denak, aitortu ditut. (*Memoria galtzen bezala du, kadiran jarritz*)

**POLIZA:** (*Jendarma Xefari*) Sar araz-zazu ama... (*Hau sartzen da*) Otoï zure alabaz arta har zazu.

**JANA MARI:** (*Samur*) Zer dira molde hauk? Ez zireztea ahalge haur gaixo hau hein huntan ezartzea?... Jakin ez duela gizonen aintzinean agertzeko usaiarik-eta, aski kopeta izan duzue hunarat bakarrik sar arazteko? Eta oraino, kriminel tzar horren aintzinat...

**POLIZA:** (*Antoni*) Bon, ez dik balio engoitik, uka eta uka, denborarik gal dezakan. Aitor-tzak: Mixel hiltzeko gauean, Margoren harrapatzerat izan hiza, gauerdi aintzinttoan?

**ANTON:** (*Apur baten buruan, boza ilun*) Ba...

**POLIZA:** Hunenganik, goizeko oren batean urrundu hiza?

**ANTON:** (*Lehen aldian bezala*) Ba...

**MARGO:** (*Berebaitaratua, nigarrez, errabian*) Poliza ustela... ustela... Nehori pitsik ez zuela salatuko hitzemana zautan... Eta nik oro aitortu horri... Ustela...

**POLIZA:** (*Bortizki Margori*) Zu ixilik, bi zaflako ez badituzu gainerat nahi... Eta orai baitugu aski jakinik, sala hau huts... (*Jendarma Xefak hartzen du Anton... Margo beti nigarrez eta «ustela» ari da*)

**JANA MARI:** Desohorea zu!... Familiako desohorea!... Zato hunarat, otoï. Izan zaitezte ama on bat zuen haurrentzat... Horra ondolik ukanen duzuen satifamendua... Trixtea, zu... (*Jalitzzen dira*)

**POLIZA:** (*Jendarma Xefari, irri maltzur batekin*) Gure lana pixka bat argitu dugu neska xoro horri esker... Xoria orai erdi eskutan dugu... Luza gabe, nik uste, ahurrerat oso osoa bilduko dugu...

OIHALA



## HIRUGARREN GERTALDIA

### Joka-lekua:

Ostatu barne bat.

*Ostalertsia zerbitzatzen ari. Hiru kantari, Katxin laugarren erakasle, ari dira Mixel zenaren kantuen emaiten.*

Kantu berri kantatzen  
 Orai naiz abian,  
 Hasi nahia nintzen  
 Gan den aspaldian,  
 Orai arte begira  
 Egon naiz lorian,  
 Gaxtagiñak hartuko  
 Tuztela agian.

Otoi egin zazue  
 Zertaz diren kasu,  
 Gauzak diren bezala  
 Nahi ditut aipatu.  
 Artzain bat bere bordan  
 Baitute garbitu  
 Etsaiaren indarra,  
 Han da baliatu.

Mixel zuen izena,  
 Deitura Larralde,  
 Bakarrik bizi zena,  
 Lagunikan gabe,  
 Gauaz eta egunaz,  
 Beti larrez larre,  
 Jan edan onik gabe  
 Zabilan debalde.

Gau hartan auzoan zen  
 Gaztain erre jaten  
 Trixteak holakorik  
 Ez zuen pentsatzen;  
 Ber'ustez deskantsuan  
 Artalderat gan zen,  
 Kriminelak etxean  
 Harmaturik zauden.

*Laugarren pertsuan, Luix sartzen da. Elgarri keinu bat eginik, kantariak ixiltzen dira.*

**LUIX:** (*Errabian*) Segitzen ahal duzue ba zuen kantua... Zertako ixildu zirezte?... Ala, zer nauzue?... Ni sobera hemen?

**KATXIN:** (*Eziki*) Ez, Luix, ez zaitugu batere sobera... Bainan ez dautzugu penarik egin nahi.

**LUIX:** (*Beti samur*) Penarik ez egin nahi?... Zuen moldeak zer uste duzue egiten dautatela?... Atsegin beharbada?... Kriminelaren aita naizela pentsatzen baduzue, errazue garbiki.

**KATXIN:** Ez dut ene kantetan holakorik aipu.

**LUIX:** Ez duzue beharbada holakorik aitortzen, bainan ez ukatzen ere... Deus hobenik gabe, hemen naukazue denek soberakin bat bezala. Ni hurbildu ordu, konpainia mutu, konpainia urrun... Atzoko hura bera nuk ni egun ere... Hiliki usteldu bat banintz bezala, leku egiten duzue niganik... Niganik ihes, deus gaizkirik egin ez dudalarik, deusetan kondenatua izan gabe ere... Ene etxea fama tzar batez ilundua, zikindua, ehoa delakotz, fama hartarik nauzue jukatzen... Ez gertatutik bainan erran-merran huts batzuen gainetik... Ez zirezte gizonak! (*Edan eta brau jalitzen da*)

**KATXIN:** Hum... Minbera, gizona... Eta minbera denak atx egiten... Ha, zertan ginuen ba gure kantua?... Ha ba... Huna segida. (*Kantua segitzen dute...*)

Artaldea bildurik  
 Bera etorria,  
 Egintxe zuelarik  
 Bere afaria,  
 Sukaldean lo zagon  
 Kadiran jarria,



Bainan hurbil bazagon  
Norbaít atzarria.

Zango puntetan zaizko  
Etorri bipilik,  
Aizkora eskuetan  
Ixil gibeletik;  
Hiru kolpez segidan  
Buru arraildurik,  
Han bertan utzi dute  
Bizia kendurik.

Hiltzea ez zen aski  
Nahi zuten erre  
Lastoz eta petrolez  
Entseatu dire;  
Ez zuten utzi nahi  
Trazarikan ere  
Afera ongi zuten  
Baliatu balire.

Justizia izan da  
Jina Baionatik,  
Jendarmeria eta  
Jaun mera herritik,  
Gibelerat itzuli,  
Bihotza trixterik,  
Ez baitute atzeman  
Nehor hiltzailerik.

*Hurrengo pertsuan sartzen da Ganix. Kantariek elgarri keinu bat egiten dute  
han dela, bainan gelditu gabe...*

Senperen gertatzeko  
Oi krima trixtea,  
Sortuz geroz zor dugu  
Guziek hiltzea;  
Bainan ez zauku haizu  
Odol ixurtzea

Horrek ekartzen baitu  
Denentzat kaltea.

*Pertsu hau eman-eta, agertzen da Tartalet...*

**DENEK:** To, Tartalet... Haugi hunarat... Jar hadi hemen. Zerbitzaria, baso  
bat gehiago. Ale, kanta zak gurekin... *(Tartaletekin emaiten  
dute hamargarren pertsua, Ganixi buruz bezala)*

Nor-nahi izan dadien  
Horren egilea,  
Galdu du sekulakotz  
Barneko bakea;  
Ez dauka pagaturik  
Egin duen kaltea,  
Irrizkatzen ere du  
Lepoa moztea.

**TARALET:** Pertsu hori ontsa emana duk gero... Jaun misionestak, gauza  
bera erran dik prediku alkitik.

**KATXIN:** To, hik biziki ontsa ikasia omen duk jaun misionestak krimaz  
eman predikua... Ale, behar daukuk prediku hori egin.

**TARALET:** Emanen diat, bainan zuek ixilik egotekotan, elizan bezala.

**DENEK:** Ba, mutikoa ba... To, haugi hunarat... Upa hadi mahainaren gai-  
nerat... Ale, xo... Lot hadi...

**TARALET:** *(Hatzparneko misionest ezagutu zonbait imitatu, emaiten du predi-  
kua)* Krima... Krima izigarri baten xehetasun hitsak hedatu  
dira Euskal-Herriaren hegal urrunetaraino, gure arrazaren  
omen ona histen dutela, jende xehen bihotzak lazten, gure  
arteko goxotasuna iluntzen eta nahasten... Krimaren tokia:  
Senpere... Krimaren ondorioa: Artzain gaixo bat, gorputz...  
Krimaren egilea: Nehork ez jakin nor den... Makur mintzo  
naiz... Bada norbait, norentzat barneak kanpo, eta iluna  
egun argi, baitira, norbait hura: Gure Jainkoa... Norbait  
haren gaztigua, ez da mentura, bainan segura. Eta gure  
artean balin bada delako kriminela, ez dezake uka nik erra-  
na... Adi-zak, kriminel trixtea... Bularrari jo eta jo ari zau-  
kan danga hori, Jainkoaren boza duk... Nahi huke pausatu,  
egin, ahantzi... ez... danga, danga... Jainkoaren bozak ez



dik pausarik emaiten... Nahi huke alegeratu, goxatu, bakea jastatu... danga, danga... Jainkoaren bozak ez dik deskantsurik uzten... danga, danga... Soinu bera entzunen duk ase artio, nahasi artio, erotu artio... danga, danga...

**GANIX:** (*Orroaz*) Bakea, bakea eta bakea... Leporaino badiat zuen danga eta danga zikinarekin.

**KATXIN:** Jes... Bainan, gizona, zer duzu?... Ez gira zutaz ari... Abusatzen ari gira.

**GANIX:** Abusamendu latza... akitgarria... errespeturik gabea...

**TARTALET:** (*Sekulako elasturian*) Ez gira zutaz ari, gu... danga, danga... Kriminelari nola joiten dion kontzientziak, erraiten dut nik... Ba, danga, danga... Merezki ahal du, alabainan, hola gizona hil eta errez geroz. (*Ganix brau jalitzzen da, esker txar batean. Tartalet ondotik jarraitzen zaiola*) Holakoeri ez liteke aski lepoa moztea. Behar litezke, lepoa moztu aintzin, ontsa sofriarazi. Eta hola ez liteke gehiago buhamerik... danga, danga, pits ez duk alabainan buhamentzat.

## OIHALA

## LAUGARREN GERTALDIA

### Joka-lekua:

Edozoin sala.

*Margo eta bunen ama, tortxa batekin, mantalinak eskuetan, sakramenduen beha daude.*

**JANA MARI:** Zuk, Margo, apeza segituko duzu aitaren ganberarat... Nik askaria preparatuko diot.

**MARGO:** Heldu dira. (*Mantalinetan, tortxa piztua, belaunikatzen dira. Apeza sartzen da bereterrarekin aitaren ganberan. Jana Mari bakarrik, mahaina ematen du eta askaria zerbitzatzen. Agertzen dira Erretora eta bereterra*)

**ERRETORA:** Agur, Jana Mari. Nola pasatu du gaua Ganixek?

**JANA MARI:** Beheiti ari da. Gau guzia amets nahasitan iragana du. Poliza eta Anton, Anton eta Poliza, ez zuen bertze aipamenik. Hek baitezpada ikusi nahi zituen.

**ERRETORA:** Heien galdea egina daut eni ere, atzo, kofesatzean. Polizari parte emana diot erakusten duen desiraz.

**JANA MARI:** Ez ahal da poliza hunarako?

**ERRETORA:** Hala balitz, onartu beharko.

**JANA MARI:** (*Bereterrari*) Zuk, Manex, sukaldean askalduko duzu. Hor dut ezarria zure askaria prest. (*Manex jalitzzen da*) Jar zaite, jaun Erretora... Uste duzua funtsez ari den poliza eta Anton galdezka?

**ERRETORA:** Nork daki?

**JANA MARI:** Izigarri da ba zerk jo giten... Urtu da, urtu, ene senarra, zonbait egun hautan... Iduri luke norbaitek horrentzat eihar meza bat eman duela.

**ERRETORA:** Hobe luke eihar meza bat balu jasaiteko, duen eritasuna baino.

**JANA MARI:** Mirikuak deus ez du konprenitu horren gaitzari. Izpiritua duela eri, dio, gorputza baino gehiago.

**ERRETORA:** Gertatzen dena da... Izpirituko arrangurek gorputza eritzen ahal dute, gorputzekoek izpiritua bezenbat. (*Atea joiten dute*)





**JANA MARI:** Aintzina.

**POLIZA:** Agur, jaun Erretora, agur, anderea.

**JANA MARI:** (*Harritua*) Zu?... Zu hemen?...

**POLIZA:** Ez nuaia jaun Erretorak deitu?...

**ERRETORA:** Ba, hala da... Eriak hainbeste galdatzen baitu zu ikustea, nahi izan diot satifamendu hori eman... Hortakotz igorri dautzut jin zaiten galdea.

**POLIZA:** Zer nahi du niganik?

**ERRETORA:** Hori bere sekretua du... Bera mintzatuko duzu... Arras gaizki da, baina adimenduz xorrotx eta zuzen.

**POLIZA:** Nun da eria?

**JANA MARI:** Zato enekin, jauna. (*Jana Mari eta Margo agertzen dira*) Poliza nahi du eriak buruz buru mintzatu... Bi emazteak kanpora despeitu gaitu... Otoi, Margo, zoazi sukaldelat... Ez duzuia uste, jaun Erretora, gure alabaren egitatea dela horren eritasunaren arrazoin larriena? Horrek, horrek... Desohoratu eta hil behar ginituen azkenean... Ez ginuen holakorik merezi, horrenganik bereziki.

**ERRETORA:** Iragan denbora ez da gehiago gure... Heldu dena, ba... Eroririk altxatu da... Jaunari milesker erran dezogun altxatu delakotz eta ixil utz dezagun erori delakoa.

**JANA MARI:** Hortaraino erortzea...

**ERRETORA:** Bada bekatu handiagorik bazterretan... Begira gaiten, guhaur hortarat ez gintezkelako urgulutik.

**JANA MARI:** Gaixo gizona... Arrunt bertzelakatu da azken gertakari hauen ondotik... Horiek daramate hobirat.

**ERRETORA:** Jainkoak daki bakarrik xuxen horren gorabeheren berri. (*Poliza agertzen da*)

**JANA MARI:** Eta?... Ezagutu zitua?... Zer nahi zuen?...

**POLIZA:** Memorio osoan da... Nahi nuke apur bat egon jaun Erretorarekin... Hemen berean egoiten ahal girea?

**JANA MARI:** Ba, ba, deskantsuan. Sala hau zuen gomendio da. (*Jalitzen da*)

**POLIZA:** (*Erretorari*) Errak, badakik, dudarik gabe zer nahi zuen eneganik. Beraz hori zuian hiltzalea... Eta gure zalaparta guziak, hobenik ez zuen baten kontra ibili ditiagu... (*Bizji-bizjia*) Hik bahakien, eta aspalditik bahakien, hori zela hobenduna... Zertako ez duk pitsik salatu?

**ERRETORA:** Nazkienak ez nitian salatze.

**POLIZA:** Ba, hik kontseilaturik, dik omen, bere burua ez ekarri hobendun, orai artio.

**ERRETORA:** Nik ez diat pits erraitekorik.

**POLIZA:** Sekretua, ez dena salaturik ere, hitz bat bederen erraiten ahal zaitkean ba: Bertze biderik har nezan, edo... holako.

**ERRETORA:** (*Bizji-bizjia*) Gure sekretua, sekretua duk burutik buru... Eta, ez zukek sekretu horri kantailarik ere ken, deus arrazoinen.

**POLIZA:** Sekretua hein bat on duk... Bainen holako makurrak ekartzen dituelarik, ez duk sekretua agertzea bekatu, bainen haren gordetzea.

**ERRETORA:** Gure sekretuaren gordeak, agerrak baino hobeki zerbitzaten dik ongia. Tapa ditzan on edo gaxtoak, hobe duk gure sekretua, sekretu egon dadien.

**POLIZA:** (*Ezfituz*) Bon... Ontsa duk... Anartean, hobendun ez zenak pairatu izan dik...

**ERRETORA:** Zuentzat hori irakaspen izan dadiela... Zuen lana egin-azue zintzoki eta umilki, eta, ez gaztigurik eman akusatuari, bainen hobendunari bakarrik.

**POLIZA:** Ahal duguna egiten diagu guk ere.

**ERRETORA:** Orai baitakik nor den hobenduna, zer xede duk horri buruz?

**POLIZA:** Hiltzen ari den bati, nola nahi duk jazar gaiten?

**ERRETORA:** Aski punitua duk hola-hola. Ez zian horrek polizaren beharrik... Kontzientzia aski zian gaztigulari.

**POLIZA:** Orai, Anton nahi dik ikusi... Anton eta Anton, hari barkamendu galdatzeko.

**ERRETORA:** Hor duka Anton?

**POLIZA:** Ba... Hik erran bezala, enekin ekarri diat. Hor duk kanpo alde hortan, jendarma xefaren gomendio.

**ERRETORA:** Hobe duk berehala eriarekin buruz buru ezartzea... Horren hatsa labor baita.

**POLIZA:** Bon, banihoak bilarat. (*Erretora apur bat bakarrik*)

**JANA MARI:** (*Agertuz*) Joan da Poliza?

**ERRETORA:** Bai, bainen berriz itzultzeko bertze norbaitekin.

**JANA MARI:** Berriz itzultzeko?... Norekin?... (*Batere ez erreputarrik*) Bainen zer du gero ene senarrak? Horrek ba bide du zerbait makur handi, hil aintzin zuzendu nahi lukenik! (*Batere ez erreputarrik*) Zuk ez dakizuia deus ere, jaun Erretora?

**ERRETORA:** Nork daki zer pasatzen den horren baitan!



**JANA MARI:** Enekin ez du ahorik ere idekitzen. Zuri emaiten dautzuia solas?

**ERRETORA:** Ba, frango polliki... Bon, berriz ere eriazen ondorat noa ixtaño bat.

**JANA MARI:** *(Bakarrik apur bat... Bere lanetan ari, arrunt zainetatua, atea jotzen dute)* Aintzina...

**LUIX:** *(Herabeki)* Agur, Jana Mari.

**JANA MARI:** *(Hotz hotza)* Agur, Luix.

**LUIX:** Nola zirezte?

**JANA MARI:** Oren latzak hurbil.

**LUIX:** Auzo gisa heldu nintzen. Ene beharra baduzuela beharbada kabal-en lanetako.

**JANA MARI:** Baditugu adixkideak laguntzeko.

**LUIX:** Badira mementoak, Jana Mari, eginbideari behatu behar baita, aiherkundeak bere gisa utziz.

**JANA MARI:** Badira ere mementoak, hobe baitira zauri batzu ez kitzikatu.

**LUIX:** Ez naiz zauri kitzikatzerat jina, bainan tratatzerat.

**JANA MARI:** Peraxatzeko lanik ez zinuen izanen, ez bazinu urratu.

**LUIX:** Ez dut nik deus urratu.

**JANA MARI:** Bai ordean zure semeak, eta errana den bezala: Martxukaren aita, laharra.

**LUIX:** Ene semea ez da, oraino segurik, hobendun jujatua.

**JANA MARI:** Bat hil zuen... Bertzeari heriotzea igorri dio. Ez zautzuia aski haren kondenatzeko?

**LUIX:** Mihi eztenak, nor ez du kondenatzen?

**JANA MARI:** Ene familia hola funditu duen semearen aitak, utziko ahal gaitu bakean, bederen bizirik girenak.

**LUIX:** Ez naiz kriminel baten aita, oraino segurik.

**JANA MARI:** Konprenituko ahal duzu zuen eta gure ontasunen arteko atekak betikotz hetsiak direla.

**LUIX:** Zuregatik dira hetsiak izanen, hola behar badute.

**ERRETORA:** *(Agertuz, ezitiki)* Otoi, emekixago emazue barne huntan... Izan dezagun oren handien errespetua. *(Luix jalitzen da, bitzik erran gabe)*

**JANA MARI:** *(Jaun Erretorari)* Zer kopeta! Ez zaio aski gu estatu huntan ezartzea. Bere bisaia oraino hemen nahi du erakutsi.

**ERRETORA:** Zer nahi zuen?

**JANA MARI:** Gure penetan, zer begitarte dugun ikusi; horra zer nahi zuen... Berak muntatu krima saltsatik jastatu.

**ERRETORA:** Otoi, Jana Mari, ez zazula hoin aise kriminela dei, oraino kondenatua ere ez den gizona.

**JANA MARI:** Ez ahal duzu, jaun Erretora, urrikariko, bere auzoa hil eta erre duen gizona! Guhaur errekaratu gaituen gizona! Ez zait iduritzen holako batentzat behar liteken pietaterik.

**ERRETORA:** *(Fermuki)* Otoi, Jana Mari, zaude ixilik. Ez dakizu zer derasazun. Eta oroitzute zure senarraz.

**JANA MARI:** *(Erdi nigarrez)* Ba, ba, gaixo gizona. Uli bati berari ez baitzion minik egingen... Ez du jasan ahal izan krima horrek bihotzean eman dion ukaldia... *(Atea jo eta idekitzen dute... Hor dira: Poliza, Jendarma Xefa eta Anton)*

**JANA MARI:** *(Arras asaldatua)* Zer... kriminela?... Orain berriz kriminela ene etxean. *(Ukailoa eginez Antoni)* Hi, hi... Gizon hiltzale zikina!... Hiregatik gaituk denak errekan.

**POLIZA:** *(Jana Mariri fermuki)* Zu ixilik... Goazen ganberarat. *(Jalitzen da)*

**JANA MARI:** *(Erretorari)* Bainan, jaun Erretora, erranen dautazuia, zer duen ene senarrak holako aferara poliza horrekin?

**ERRETORA:** Hori berek dakite.

**JANA MARI:** Ala, ene senarrak gorde dauta zerbait? Gau hartan bazuena zerbait ikusi edo entzunik?

**ERRETORA:** Ditakena da...

**JANA MARI:** Zer zuen?... Anton ikusia bederen, eta ez salatua?

**ERRETORA:** Beharbada.

**JANA MARI:** Ez naiz estonatzeko, hori den zuzenarekin, nahi izan baitu kontzientzia arindu hil aintzin... *(Apur bat ixilik... Erretora barat eta hunarat dabil. Hiru gizonak agertzen dira)*

**ERRETORA:** Egin duzueia zuen lana?

**POLIZA:** Ba... Paperean izkirioz emaita aski.

**ERRETORA:** Bon, eriazen ondorat noa. *(Anton jartzen da nigarrez, Jendarma Xefa xutik dago ixilik... Poliza izkiriatzen mabain hegian)*

**JANA MARI:** *(Antoni)* Nigar egiten duka, nigar! Ez duk orain tenora! Lehena nago zuian gogoeten egiteko tenora! Askiz nigar guhauri egin arazi daukuk... Zuzen duk noizbait hihaurek egin dezakan.

**POLIZA:** *(Bizji-bizjia)* Otoi zaude ixilik... Utz nezazu izkiriatzerat. *(Apur bat ixilik)*

**ERRETORA:** *(Agertuz)* Jana Mari, eriak Margorekin bere ondorat deitzen zaitu... Behar omen dautzu-eta zerbait serioz buruz buru erran.



**JANA MARI:** Zer nahi du?

**ERRETORA:** Ez dakit.

**JANA MARI:** Ontsa da. *(Sukaldeko atea idekiz, Margo deitzen du)* Zato Margo... Aitak nahi omen gaitu mintzatu. *(Biak jaltzen dira)*

**ERRETORA:** Bere egitatea salatuko diote... Ez du arrangura horrekin hil nahi... Barkamendu galdetuko diote bieri eta, ahalaz, haren krima errepara dezaten... *(Denak ixilik dagotzi. Apur baten buruan, marrumaz agertzen dira ama-alabak, eta pitsik erran gabe, jaltzen sukaldeko atetik)*

**POLIZA:** Bon, paper hau eriarri sinarazi-eta, gure lana bururatua izanen da... *(Jendarma Xefari)* Zato enekin.

**ERRETORA:** Ez dakotzia, orai, Antoni, esku horiek libratzen ahal?

**POLIZA:** Ba, egin ditakena da... *(Hala eginik Poliza eta Jendarma Xefa jaltzen dira)*

**ERRETORA:** *(Ezfitiki)* Errazu, gaixo Anton, kontent ahal zira?

**ANTON:** Alabainan, jaun Erretora.

**ERRETORA:** Beti sentimendu beretan zirea Margorentzat?

**ANTON:** Ni beti... Hura hala bada enetzat.

**ERRETORA:** Ba, badakit hura ere hala dela zuretzat... Ez zaitu harek behin ere ukatu... *(Sukaldeko atea idekiz)* Zato, Margo, hunadino, plazer baduzu... *(Margo hurbiltzen zaio Antoni nigarrez)*  
Ha, zuek biak, ene haur maiteak,  
Oren hitsak pasa berri dituzue...  
Halere zuen amodioa ez da hautsi...  
Izaitekotz azkartu... Tinka-aitzue  
Esku horiek elgarri... Atxik-azue.  
Zuen amodioa garbi... Agian, laster,  
Aldare aintzinean, sekulan hautsiko  
Ez den lokarriaz estekatuko ditugu  
Bi esku horiek...

*(Eskuak tinkatzen dituzte erdi nigarrez)*

OIHALA